



Arartekoaren 2024R-242-23 Ebazpena, 2024ko uztailaren 4koa. Honen bidez, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio familia bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskera bat ezetsi eta artxibatu dela deklaratzeko duen ebazpena berrikustea, zuzenbidearekin bat ez datorrelako eta ez duelako aintzat hartu adingabearen interes gorena.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoarengana jo du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako bi jarduketan aurkako kexa jartzeko. Alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBEa) eskaera ezetsi diolako, eta, bestetik, ebazpen horren aurkako gora jotzeko errekurtsuari erantzuteko orduan asko berandutu delako.

Izan ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestazioetarako eta gizarteratzeko zuzendariak, 2022ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez, kexagilearen DSBEaren eskaera ezetsi zuen, laguntza hori zuzentzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa ez zuelako epe barruan aurkeztu.

Documento identificativo en vigor de (...) y de (...). Los pasaportes aportados de (...) y de (...) están caducados desde 27/11/2021. Todas las personas pertenecientes a la UC y mayores de 14 años han de presentar documento acreditativo de identidad en vigor.

Erabaki hori maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 30.3 artikuluan oinarritzen da, diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duena (147/2010 Dekretua, une hartan indarrean zegoena), bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ere, Administrazio prozedura erkidea arautzen duena (APEL).

Era berean, 2022ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ukatu zuen, DSBEaren titularra izateko baldintzak betetzen ez zituelako.

2023ko urtarrilaren 30ean kexagileak administrazio-errekurtsua aurkeztu zuen. Errekurtsu-idazkian berriro adierazi zuen ezin zituela pasaporteak berritu, ez zuelako indarrean bizileku-baimena eta bere administrazio-egoera irregularra zelako. Hala, errekurtsoarekin batera, Aljeriak Bartzelonan duen Kotsuletxe Nagusiak igorritako jakinarazpena erantsi du, pasaportea berritzeko informazio-eskaerari erantzuna emateko.





Jakinarazpen horretan Aljeriako Kontsuletxe Nagusiak honakoa adierazi zion “de conformidad con el Decreto Ejecutivo N° 16-58 de 3 de febrero de 2016¹, que regula la asignación de un pasaporte de urgencia, este documento se expide a los ciudadanos argelinos no registrados en una misión diplomática o consular, cuyo expediente para la obtención de la tarjeta de residencia, ha sido aceptado por las autoridades competentes del país anfitrión, que requiere un pasaporte válido”. Hori dela-eta, Kontsuletxeak pasaportea berritzea ukatu zion ez zituelako betetzen aurrez aipatutako Dekretu Exekutiboaren betekizunak, eta ez zuelako indarrean zegoen bizileku-baimenik. Jakinarazpen horretan, gainera, aurkeztu behar zituen dokumentuak adierazi zizkion, besteak beste, gizarte- edo lan-errotzea eskatzeko bizileku-txartela eskatu izanaren egiaztatzea.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, lankidetzara eskatu zion Lanbideri. Hala, aurreko gertakari buruzko informazioa eskatu zion eta aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion baina, errepikakorrek ez izatearren, gero aipatuko ditugu. Zehazki, gai hauen inguruko informazioa eskatu genion:

- a) Aljeriako 16-58 Dekretu Exekutiboa aplikatuz pasaportea berritzeko ezintasunak eragiten duen desberdintasun-egoerari buruz duzun iritzia, eta sortutako zaugarritasun-egoerari Lanbidek erantzun ahal dion.
- b) Prozedurazko gabeziei buruz duzun iritzia; izan ere, ez datza DSBE eskaera bat zuzentzean, baizik eta eskura ez daitekeen dokumentu bat aurkezteko ezintasunean.
- c) Adingabearen interes gorena kontuan hartu den eta interes horrek kexa-espeditate honen edukian eta pasaportea berritzeko ezintasunari lotuta dagoen arazoan nola eragiten duen.
- d) Kexagileari erantzun egokia emateko zer jarduketa egiteko asmoa dagoen, egiteko asmorik badago.

3. Lanbidek Arartekoari erantzun dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko uztailaren 19ko Ebazpenaren kopia bidaliz. Ebazpen horrek ezetsi egin zuen 2023ko urtarrilaren 30ean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendariaren 2022ko abenduaren 30eko Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsioa.

¹Aljeriak Espainian duen Kontsuletxearen webgune honetan kontsulta daiteke: <https://consulatalgerie-barcelone.org/pasaporte-de-urgencia/>.



Bidalitako erantzunak ez ditu erantzuten defentsa-erakunde honek lankidetzaskaeran adierazitako gaiak. Interesgarria izango delakoan, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren hirugarren zuzenbideko oinarria transkribatzen da, informazioeskaerari erantzuteko bidali zena.

“TERCERO.- Visto el recurso presentado y la documentación obrante en el expediente se constata que el recurso no puede progresar. Aparte de que no constan registradas o incorporadas al expediente esas alegaciones que argumenta, la respuesta del consulado que aporta no menciona como causa denegatoria la circunstancia alegada. Es más, en la respuesta aportada se solicitan los siguientes requisitos o documentos:

- Que exista un expediente para la obtención de la tarjeta de residencia; que su residencia sea ilegal no es impedimento para esto.
- Comprobante de la nacionalidad argelina; no se ha justificado que no pueda aportarlo.
- Comprobante de la residencia o empadronamiento; dispone de ello ya que lo ha aportado a este expediente, independientemente de la legalidad de su residencia.
- Justificar por qué requiere el pasaporte, es decir que trámite o solicitud está cursando. Y usted podía haber justificado este mismo trámite.

Es decir, no se le ha alegado en ningún momento que el permiso de residencia sea base para la denegación y, en lo que se refiere a residencia efectiva o fáctica, aunque sea ilegal, sólo se le ha solicitado un empadronamiento del que dispone.

Además, lo que se le ha denegado es un pasaporte de urgencia específico para el trámite de obtención del NIE, pero no justifica que su país no le pueda emitir uno ordinario, no de urgencia. En todo caso, esta Administración no puede responder de las vicisitudes por las que otro ente, y menos ya de otro Estado, no le emite el documento que le requerimos.

El argumento, por tanto, decae”.

Hortaz, egitate eta zuzenbide-oinarri nahikoak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egin dira:





Gogoetak

Aurretiazkoa. Aldez aurretik, Arartekoaren ustez, nahitaezkoa da Arartekoaren erakundearen araubide juridiko arautzailea gogoratzea: 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, zehazki, laguntzeko betebeharra, 23. artikulua eta hurrengoak, eta eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo argibide guztiak lehentasunez eta presaz emateko betebeharra.

Lanbidek ez dio erantzun Arartekoak bidalitako gai jakin batzuei buruzko informazioa eskatzen zuen lankidetzaz-erabazpenari. Horren ordez, gora jotzeko errekurtsoren ebazpenaren kopia erantsi du soilik. Erakunde honek bere Lege arautzailearen eta bertan agindutako eginkizunen ondoriozko legezko betebeharrak gogoratu besterik ezin du egin, eta, beraz, une honetan berriro nabarmendu behar du Lanbidek kasu honetan ez dituela betebeharrak bete, Arartekoari emandako erantzuna ez baitator bat lankidetzaz-erabazpenari eskatutakoarekin.

Hori guztia dela-eta, gaiaren funtsa aztertuko da jarraian: Lanbidek DSBEa/EPOa laguntzen eskaera bat ezestea erabaki du, eskatzaileak ez duelako indarrean dagoen identifikazio-dokumenturik aurkeztu.

Lehenengoa. -Lanbidek DSBEaren eskaera ezestea erabaki du eskatutako dokumentazioa ez delako aurkeztu, eta ebazpena 147/2010 Dekretuaren 30.3 artikuluan oinarritu du, bai eta 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ere. Alabaina, ez da eskaera baten zuzenketa. Arazoa da **kexagileak ezin izan zuela eskatutako dokumentazioa aurkeztu, ez zeukalako dokumentaziorik.**

Kexagileak bere Lanbideko bulegoan aurkeztu zuen bizikidetzaz-unitateko kideak egiaztatzeko dokumentazioaren fotokopia, baina dokumentazio hori ez zegoen indarrean.

Arazoa, beraz, ez da eskaera zuzentzeko eskatutako dokumentazioa ez dela aurkeztu. Arazoa da, dokumentazioa ez dela aurkeztu bizikidetzaz-unitateko kide guztiek indarrean duten pasaporteak aurkezteko moduan egon ez delako, arrazoitu zuen bezala, Aljeriako Kotsuletxeak ez dituelako pertsonen pasaporteak berritzen pertsona horiek egoera administratibo irregularrean daudenean.

Kexagileak dokumentazio-errekerimenduari erantzun zion eta eskura zituen identifikazio-dokumentuak aurkeztu zituen. Bai DSBEaren eskaeraren ebazpenak, bai gora jotzeko errekurtsoren ebazpenak bizikidetzaz-unitateak DSBEaren onuradun izateko baldintza materialei buruzko alegazioak dituzte, eta, beraz,





Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ebazpena eman behar zuen DSBEaren onuradun izateko baldintzak betetzen zituen aztertzeko.

Arartekoaren ustez, kasu honetan, ez zen eskaera ezetsi behar. Horren ordean, Lanbidek egokitzat jotzen bazuen, bidezkoa litzateke ukatzeko ebaztea.

Orokorrean, beste nazionalitate batzuetako atzerriko pertsonak aukera dute pasaporte dagokien kontsuletzetan berritzeko, nahiz eta administrazio-egoera irregularrean egon. Alabaina, egoera horretan dauden Aljeriako etorkinek ezin dituzte berritu.

Bestalde, Lanbidek kexagileari eskatzen dion errekerimendua indarrean dauden identifikazio-dokumentuak aurkeztea da. Hala, errekerimendu hori ez dago une hartan indarrean zegoen araudiaren oinarriaren literaltasunean: Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzen duena eta hura garatzen duen araudia, 147/2010 Dekretua.

147/2010 Dekretuaren 29. artikulua, eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa zerrendatzen duenean, honakoa xedatzen du:

“1.– Honako agiri hauek entregatu beharko dira eskaerarekin batera, beharrezkoak baitira dekretu honen 9. artikuluan araututako eskakizunak betetzeko:

- a) Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitateko gainerako kide diren 14 urteko edo hortik gorako nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia”.

Arartekoaren iritziz, ezestea deklaratzeko erabakitzen duen ebazpena eta administrazio-errekurtsio ezesten duen ebazpena ez datoz bat Zuzenbidearekin, kexagileak dokumentazio-errekerimendura erantzun duelako, baina ezin izan du eskatutako dokumentazioa aurkeztu. Beraz, adierazi den moduan, funtsezko arazoa da kexagileak ezin duela pasaporte berritu. Lanbidek ebazpen bat eman behar zuen eta horren bidez arrazoitu behar izan zuen, egoera horretan, hiru adingabe ardurapean dituen familia bati zergatik ez dagokion DSBEa jasotzeko eskubidea. Kontua ez zen eskaera ebazteko ezinbesteko dokumentu bat aurkeztea, baizik eta egoera horretan bizikidetzaren unitateak DSBEa jasotzeko eskubidea zuen ala ez baloratzea, bai eta bere nortasuna beste modu batean egiaztatu zezakeen ala ez baloratzea ere.

Bigarrena. Arartekoak jakin badaki oso garrantzitsua dela dokumentazioa indarrean edukitzea administrazio publikoarekiko edozein harremanetan. Honako kasu hauetan eman daitezkeen erantzunak zalantza gehiago sortzen dituzte:



Administrazioak eskatutako baldintzetan nortasun bat egiaztatzeko ezintasuna, estatu nazional bateko araudi baten aplikazioarekin lotuta dago. Estatu horrek beste estatu batean bizi diren herritarren pasaporteak berritzea erabakitzeke subiranotasuna du, baina hori egiteko **eskatzen diren bete beharreko baldintzak zailak eta ezinezkoak dira**. Aljeriako Herri Errepublikako Demokratikoaren eskakizuna, esan bezala, **ez da ohikoa beste herrialde batzuetan**, eta, beraz, atzerritarrek beren kontsuletzetan berritu ditzakete pasaporteak, bizileku-estatuan administrazio-egoera erregularrean egon beharrik gabe.

Aljeriak Bartzelonan duen Kontsuletxe Nagusitik pasaporte-eskaerari erantzunez jasotako jakinarazpena bat dator defentsa-erakunde honek duen informazioarekin, alegia, jatorri aljeriarreko pertsonak ezin dutela pasaportea berritu administrazio-egoera irregularrean dauden bitartean.

Konsuletxeak 2016ko otsailaren 3ko 16-58 zenbakidun Dekretu Exekutiboaren xedapenaren berri eman du. Dekretu horrek egoera jakin batzuetan urgentziarako pasaportearen esleipena arautzen du. Horietan guztietan, bizileku-baimena egiaztatu behar da, edo, bestela, bizileku-baimenaren eskaera aurkeztu izana egiaztatu behar da, bai eta Espainiako agintariak baliozko pasaportearen errekerimendu bat eskatu izana egiaztatu ere. Era berean, kontsuletxearen webgunean² egiaztatu ahal izango da indarrean dagoen egoitza-baimena eskatu dela edo pasaportea eskatzeko (edo, hala badagokio, berritzeko eskatzeko) egoitza-baimena berritu izanaren frogagiria aurkeztu dela.

Hala ere, gora jotzeko errekurtsuaren ebazpenak adierazten du pasaportea berritzeko oztopo hori ez dela erreala, ezagunak baitira atzerritarrek dituzten zailtasunak Espainian lan egiteko eta bizitzeko baimena lortzeko, honako hauek aplikatzen baitira: [urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa](#) (atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa), bai eta hura garatzen duen araudia ere, hau da, [apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua](#). Dekretu horren bidez onesten da 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua (atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa), 2/2009 Lege Organikoak aldatu ondoren. Era berean, lege horien aurka egin diren ukapen eta errekurtsu judizialen kopuruak, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak babestutako berriazko zerbitzu bat egoteak ([Aholku Sarea](#)-Atzerritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea), arazoaren norainokoaren fede ematen dute. Beraz, ez dirudi arrazoizkoa denik zalantzan jartzea, Lanbidek kasu honetan egin duen bezala,

² Ikus Aljeriak Espainian duen Kontsuletxearen webgunea: <https://consulatalgerie-barcelone.org/solicitar-o-renovar-pasaporte/>.



“horretarako eragozpenen bat egotea”, atzerritarrek Espainian beren administrazio-egoera erregularizatzeko duten zailtasunak aski ezagunak baitira.

Kexagileak, beraz, DSBEa/EPOa espedientearen izapideetan eta errekurso-fasean justifikatu du zergatik ezin duen aurkeztu eskaera zuzentzeko eskatutako dokumentazioa, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi du.

Hirugarrena. - Amaitzeko, azpimarratu behar da DSBEaren eskaera artxibatzeak eta, ondoren, EPOa ukatzeak hiru adingabe dituen familia bati eragiten diola. Ondorioz, Lanbidek kontuan hartu beharko zukeen adingabearen interes gorena DSBEaren eskaera ezetsi dela deklaratzeko erabakitzen duen ebazpenean eta, baita ere, EPOaren ukapena ebazten duen ebazpenean.

Betebehar hori honako honetan dago oinarrituta: Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentzioak, 1989ko azaroaren 20koak, 3. artikuluan ezartzen du adingabearen interes gorenen printzipio eta eskubide hori. Arartekoak Haurren Eskubideen Batzordearen 14. Ohar Orokorren³ Gomendio Orokorrean mintzatu zen haurren interes gorena funtsezko lehentasuna izateko eskubideari buruz⁴. Izan ere, ohar horren IV.A.1.b)) puntuan argitzen denaren arabera, interes gorenen printzipioa errespetatzea eska daiteke haurrei zeharka eragiten dieten erabakietan; hau da, ez bakarrik haiengana zuzendutako administrazio-egintzetan, baita haiengan eragin dezaketenetan ere, nahiz eta egintzon zuzeneko hartzaileak ez izan.

Ohar Orokor hori kontuan hartu da urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatzeko, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa emandako idazketan, eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 2. eta 3. artikuluen (LOPJM 1/1996) idazketan txertatu da. Artikulu horiek adingabearen interes gorena garatzen dute, eta aplikatzeko jarraibideak ematen dituzte. Ildo horretan, 3. artikulua berriaz ezartzen du botere publikoen jarduketara nazioarteko araudi horretara egokitu behar dela. Eta, bestalde, Konstituzio Auzitegiaren arabera, oinarritzko eskubideen interpretazioak, giza eskubideei buruzko itunei jarraikiz, “ezin du alde batera utzi

³ Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu duten estatuek betetzen ote duten jarraitzeaz eta ezarri behar den eremuetan behar bezala interpretatzeko orientabideak emateaz arduratzen den organoa.

⁴ Nazio Batuak. Haurren eskubideei buruzko konbentzioa. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. ohar orokorra (2013), zeinak ezartzen duen haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Online eskuragarri]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf.



nazioarteko itun eta akordio horiek ezarritako bermeorganoek egiten duten interpretazioa⁵”.

Hortaz, legezko betebeharra dago adingabeen interes gorena kontuan hartzeko eragiten dieten erabakietan, eta interes horri funtsezko lehentasuna eman behar zaio. Gainera, haurrak dauden bizikidetzat unitateei eragingo dieten ebazpenetan haurraren eskubideetan eta garapenean izango dituen ondorioak azaldu eta justifikatu behar dira.

Adingabearen interes gorena berariaz arautu da Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen 2. artikuluan. Beraz, kontzeptu hirukoitza da: eskubide subjektiboa, interpreta daitekeen printzipioa eta prozedurazko araua. Artikulu horrek berme jakin batzuk xedatzen ditu, botere publikoen erabakietan errespetatu behar direnak, hala nola edozein erabakirekin batera aurkeztu behar direla erabaki hori eragin duten irizpideak, bai eta irizpideak elkarren artean eta egungo eta etorkizuneko beste interes batzuekin haztatzean aplikatutako elementuak aurkeztu ere, eta ezarritako berme prozesalak errespetatu behar ditu. Era berean, erabakia berrikusteko aukera emango duten baliabideak egongo direla bermatu behar du, erabakia hartzean adingabearen interes gorena funtsezkotzat hartu ez denean.

Lanbidek ez du azaldu, ez justifikatu, ez haztatu, zer ondorio izango dituen hiru haurren eskubideetan DSBEa ezestearen eta artxibatzearen erabakiak, ez eskaeraren ebazpenean, ez administrazio-errekurtsoaren ebazpenean. Arartekoari ere ez dio erantzun, espresuki eragin horri buruzko informazioa eskatu dionean, ez eta galdetu dionean interes horrek nola eragiten duen espediente honen edukian eta pasaporte berritzeko ezintasunaren arazoan ere.

Horregatik, Arartekoaren iritziz, DSBEaren espedientearen ebazpena ematerakoan eta Arartekoari erantzuterako orduan kontuan hartu beharko zuen eskatzaileak hiru ume zituela, espresuki eskatu baitzen horri buruzko informazioa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau aurkezten diogu Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

⁵ Ikusi, zentzu horretan, honako hau: Konstituzio Auzitegia (bigarren sala). 87/2019 Epaia, maiatzaren 8koa, bigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:1989:81. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/1287> eta Konstituzio Auzitegia (lehenengo sala). 116/2006 Epaia, apirilaren 24koa, bosgarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2006:116. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/5718>.



GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du kexagileak aurkeztutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera ezetsi duela adierazten duen ebazpena berrikustea, eta, ondorioz, gomendatzen du etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea erabakitzen duen ebazpena berrikustea, Zuzenbidearekin bat ez datorrelako eta adingabearen interes gorena kontuan hartu ez delako. Era berean, kexagileak aurkeztutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera aztertzea gomendatzen du eta pasaporte berria ez den beste froga-elementu batzuk onartzea, bizikidetz-unitateko kideen identitatea ziurta dezaketenak.

